

ETORKIZUN JASANGARRIAREN ERRONKA

Ordiziako Jakintza Ikastola Nazio Batuen Erakundeak proposatutako Agenda 2030 proiektuan buru-belarri lanean ari da, ingurunea hobetzeko eta jasangarritasuna lortzeko asmotan. Ikasturte honetan eskuartean hainbat proiektu dituzte; hots, energia astea, jan-makina eta 0 zabor proiektua. Hortaz, ikastolak, martxan ezarritako ekimenen bitartez, etorkizun jasangarriago bat lortzeko bidea urratzea du xede. Beraz, konpromiso irmoekin mundu hobeagoa eraiki nahian ditugu.

Zer da Agenda 2030?

Esan bezala, Jakintza Ikastolak Agenda 2030 proiektuan parte hartzen du. Ekimen hau Nazio Batuen Erakundeak proposatutako egitasmo bat da, eta 18 helburu dauzka bere baitan. Gainera, izen ezberdinak izan ditu azken urteetan. Kasu, Agenda 2021 lelopean ezagutu zen ekimena ikastolan, baina erakundeak helburu horiek betetzen ez zirela egiaztatzean 2030. urtera arte luzatzeko erabakia hartu zuen. Hortaz, azken izen aldaketa bat izan zuen, Agenda 2030.

**Nazio Batuen Erakundeak
proposatutako egitasmo bat da, eta 18
helburu dauzka bere baitan.**

Larraitx Garmendiak, Jakintza Ikastolako zuzendariak, dioenez, “iruditzen zait Agenda 2030 oso proiektu garrantzitsua dela, ingurumenarekin eta gizartearekin bat egiten duen egitasmoa delako, baita kulturekin bat egiten duelako ere”. Bestetik, hainbat urte daramatzatela sakonki murgilduta eta, azkenaldi honetan, aktiboki lanean ari direla aitortu du ikastetxeko zuzendariak.



Agenda 2030 proiektuak ikasleengan eragin handia izan du; izan ere, martxan dauden egitasmoei esker jasangarritasuna zer den ezagutzeko aukera izan dute, baita kontzientzia hartzeko ere. Jakintza Ikastolak ez du dirulaguntzarik jaso; beraz, ikastetxeak

berak ekintzak aurrera eramateko beharrezkoa izan den dirua jarri du, eginkizun garrantzitsua baita. Gainera, beste ikastola batzuekin lan egiten dute, eta ikasleengan zuzentzen den proiektu batean ere partaide dira, Erasmus+ egitasmoan, hain zuzen ere.

Energia astea: argirik gabeko eguna



2024. urte amaieran Jakintza Ikastolak energiaren astea ospatu zuen. Ekintzen artean, argirik gabeko eguna ospatu zen. Hori dela eta, ordenagailurik gabe, argirik gabe, fotokopiak egin gabe... egon ziren, hau da, garai batean egiten zen modura. Egitasmo honen xedea energia

murrizteko eta energiarik gabe klaseak emateko aukera dagoela frogatzea izan zen. Beraz, egun osoa elektrizitaterik gabe igaro zuten. Halere, irakasleek diseinatutako saioak normaltasunez aurrera eramane zituzten, hori bai ordenagailurik, telebistarik eta inprimagailurik gabe. Horrekin batera, ekintza eta jolas ezberdinak burutu zituzten, DBHko ikasleak LHko ikasleekin. Bertatik atera den hausnarketa hau da: “energiarik gabe saioak berdin-berdin eman daitezkeela”.

Gehiegizko kontsumoa saihestuz

Orain, ikasleak 12. helburua, hau da, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, lortu nahian lanean ari dira. Horretarako, 0 Zabor proiektuan murgildurik daude. Hori burutzeko ikastetxeko ekolider guztiak elkartu, gela bakoitzeko bi ordezkari, eta ikerketa sakon bat egin nahian lanean aritu dira. “Oraingo



honetan, gelaz gela joan gara zenbat zabor kontsumitzen dugun ikertzea. Datuen bilketa eta azterketa egin ostean, ondorioztatu dugu organikoa eta plastikoa dela gehien kontsumitzen duguna”, adierazi du DBH2ko ekoliderrak.

Horretaz gain, ikastetxean eguzki plakak jartzeko proiektu batean murgilduta daude. Horretarako, GreenSchool erakundearekin harremanetan jarri dira. Garazi Idiakezek, Agenda 2030 proiektuko arduradunak, azaldu du, “momentu honetan erakunde horren egitekoa eguzki plakak gure ikastetxean jarri ditzakegun aztertzea da, eta behin emaitzak jaso ondoren zer egin erabakiko dugu”.

0 Zabor proiektua eta jan-makina

Aipatu bezala, 0 Zabor Proiektua martxan dute eta, bertan zehaztutako helburuak bermatzeko, ikastolak, udalaren lankidetzarekin, jan-makina bat jarri du martxan. Hau da, Jakintza Ikastolako jangelan egunero soberan geratzen den janaria herritarren eskura egongo da makina horri esker. Garazik, proiektuko arduradunak, aditzera eman du, “aparatu hau



Ordiziako Majori kiroldegian eskuragarri egongo da jantokian sobratzen diren elikagaiak aprobetxatzeko. Gainera, dena ondo aterako balitz, leku gehiagotan ipintzeko asmoa izango genuke”.



Hona hemen jan-makinaren funtzionamendua hitz gutxitan. Lehenengo, egunero soberan gelditzen diren hondakinak janlekuko arduradunek ontzi konpostagarrietan sartuko eta bilduko dituzte. Ondoren, ikasleek elikagai bakoitzari dagokion etiketa jarriko diote. Eta, amaitzeko, makinara eramango dituzte.

Ikastola gehiagoetan ere martxan da proiektu hau; adibidez, Orioko ikastetxean. “Proiektu hau bi irakasleen artean aurrera eramán dugu; halere, hasiera batean bakoitza bere kabuz hasi zen lanean Interneten zein sare sozialetan ikusitako informazioa oinarri izanik, bata

“Gogotsu lan egin beharra izan dugu jan-makina hori ordiziarren eskura ipintzeko”

bestearen jakin-mina ezagutu gabe. Beraz, egoera horretaz jabetu bezain laster, elkarrekin hasi ginen lanean. Gogotsu lan egin beharra izan dugu jan-makina hori ordiziarren eskura ipintzeko”, adierazi du Garazik.

Ikuskatzailea Jakintza ebaluatzea

Orain dela gutxi, ikastolako eraikinera ikuskatzaile bat gerturatu zen ikastola berde eta jasangarria den egiaztatzerá. Larráitz Garmendia zuzendariaren iritziz, “ziur nago Jakintzak gáindituko duela. Gure ikastetxeak erakutsi du

Agenda 2030 proiektuarekin bat egiten duela, eta, dudarik gabe, berdea eta jasangarria izan nahi duela. Badakigu asko daukagula oraindik hobetzeko, baina bide horretan jarraituko dugu”.

“Badakigu asko daukagula oraindik hobetzeko, baina bide horretan jarraituko dugu”



Ikuskatzailearen bisita buru-belarri prestatu zuten Jakintzako ekoliderrek. Besteak beste, ikasleek sortutako abesti batekin ongi etorri emanez, ikastolako eremu desberdinak erakutsiz, gauzatzen diren egitasmoen hala aurkezpenak nola azalpenak emanez... “Aitortu behar dut oraindik ez dugula jaso emaitza. Haatik, oso pozik gaude ikasleek nahiz irakasleek izandako konpromezuagatik. Oso egun garrantzitsua izan zen Jakintza Ikastolarentzako”, aitortu du Garazik.

Laburbilduz, Jakintza Ikastolak jasangarria izan nahi du, eta, horretarako, gogotsu lanean jarraituko du; besteak beste, proiektu, egitasmo eta ekintza berriak martxan ipiniz edota hasita daudenei jarraipena emanez. Halere, hori burutzeko bai ikasleen, bai irakasleen parte-

hartzea ezinbestekoa izango da. Beraz, ez da egitasmo finko bat! Ingurunea hobetzea eta jasangarritasuna lortzea guztion ardura da! Denon indarrak batuz etorkizun iraunkor eta oparo bat eraiki dezakegu! Gu prest gaude, eta zu?

Naroa Gereñu, Sara Cortes, Ana Gorrotxategi, Ane Mitxelena eta Izar Mendizabal